



Bertan dira Gazte Festak

Ostegunetik igandera, Urnietan / 7-10



AIURRI

Euskaraldiaren lehen balorazioa egin dute

Lehen erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz izan daitezen saiatu dira hainbat eta hainbat herritar, Euskal Herrian barrena. / 3-6



Gipuzkoako Itzulian gailendu da Urnietatik abiatu zen Andoaingo Txirrindulari Eskola / 11



San Juan egunean egiten den Axeri Dantza prestatzeari ekingo diote datorren astean / 15



Haurren Euskal Jaialdiaren edizio berria, igande honetan, Andoaingo kaleetan / 16





PLAYOFF

etb1

EKAINAK 3, ASTEARTEA. 18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

IKUSKIZUN PARTIDA: URRIZA - AZPIROZ VS ALDABE - BARRENETXEA IV

ERREMONTARIKO PLAYOFF PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA - 3. SETA, 8 TANTORA

ANSA II - ZUBIRI VS EZKURRA II - JUANENEA



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Udazkenean berrituko dute Bazkuneko zuzendaritza

Aurreko larunbatean batzar orokorra egin zuten Urigain Etxean, eta bertan etorkizuneko ildoak zehaztu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak udazkena bitarte luzatuko du bere jarduna eta ez ohiko batzarrean berrituko dute gidaritzalanak egingo dituen lantaldea

eta baita datozen urteetako programa ere. Aldaketa hori ezinbestean egingo da euskara elkartearen eraldaketa sakonean murgilduta baitago. Xede nagusia dute, aski ezaguna dena: egoitza berria eskuratzea. Egi-

tasmo anbiziotsu horri begira, zuzendaritza talde berri horren zeregina bikoitza izango da, beraz: batetik, egoitzaren erosketa eta martxan jartzea bideratzea. Bestetik, egoitza berria programazio berriarekin hornitzea.

Xehetasun horiek guztiak eman zituzten Urigainen. Bertan adierazi zenez, elkarteko bazkideek eta herritarrek eraldaketa-prozesu horren harirako informazio eguneratua jasoko dute datozen asteetan.



Nago Huizi, Ane Jalon eta Jon Unanue, Larramendi Bazkunaren urteko batzarrean. AIURRI



GIPUZKOA MERKATARIAK

Gonzalez Sastre aitortza

Gipuzkoa Merkataria Federazioak Andoaingo Kale Nagusiko jantzi-dendaren ibilbidea goraiatu du. Gonzalez Sastreiaz gain, Juanxo Taberna, Villa Flores eta Casa Ponsol omendu dituzte, beste hainbaten artean.

Ekitaldira hurbildu zen egungo dendaren arduradun Virginia Gonzalez. Hark, bere aldetik, aitaren lekukoa hartu du negozioan. Izan ere, Antonio Gonzalez erreferentziatzko sastrea izan da dendako hainbat bezerorentzat.

Salgai dira Salkin elkarteko bonuak, agortu arte

Udaberriko kanpainako bonuak ez dira oraindik agortu. 30 euro ordainduta, bonuek 50 euroko balioa izango dute merkatuan. Horietako bakoitza 10 euroko 5 kupoitan banatuko da eta kanpainarekin bat egiten duten merkatalguneetan erabili ahal izango dira. Salkinen egoitzaren arretarako ordutegia honako hau da: 10:00etatik 14:00etara eta 16:30-20:00etara.

Bonuak koloreka sailkatuta daude:

- Berdea: janari-dendak eta ostalaritza.
- Laranja: modako saltokiak.
- Urdina: zerbitzuak.
- Horia: bi txartel, komodin gisa.

Andoainen erroldatuta egotea eta adin nagusikoa izatea da bonuak erosi ahal izateko baldintza nagusia. Gehienez ere, bonu bat salduko da NAN bakoitzeko, eta aldi berean, bonuak jasotzeko gehienez ere bi NAN aurkeztea onartuko dira pertsona bakoitzeko.



Euskaraldiaren lehen balorazioa egin zuten Bilbon, aurreko astelehenean. AIURRI

Euskaraldiaren lehen balorazioa

Bukatu da aurtengo Euskaraldia, hizkuntza ohiturak euskarara gerturatzeko 11 egunetako ariketa praktikoa. Hori guztia posible izan dadin, hilabeteetako prestaketa-lanetan murgildu dira batzorde eta entitate asko. Tartean, Andoaingoak eta Urnietakoak

Erredakzioa ANDOAIN / URNIETA

Euskaraldiaren lehen balorazioa egiteko Bilbon bildu ziren, maiatzaren 26an, Euskaraldiko koordinazio mahaia osatzen duten erakundeetako ordezkariak. Tartean, Irati Iciar Madinabeitia, Taupa euskaltzaleen mugimenduko lehendakaria eta Jon Kobeaga Erkiaga, Euskaraldiko koordinazio orokorreko kidea.

Euskaraldiaren berrikuntza-tako bat izan da urtaro aldaketa, udaberrira pasa baita ariketaldia. Aldaketa oso ondo baloratu dute batzordeek eta gainerrako eragileek, horrek aldaten eta giroan onura ekarri duelako bai herrian eta baita batzorde-kideen artean ere. Hala ere, nahi baino txapa gutxiago ikusi dira kalean, eta hori aztertu beharrekoa da. Izan ere, txapa ezinbesteko elementua da ariketa modu eraginkorrean egiteko.

Erabilera, erdigunean

Honako puntu hauetan laburbildu dute aurtengoak eman duena:

- "Euskararen erabilera erdigunean jarri du Euskaraldiak. 11 egun horien bueltan hedabideetan, ikastetxeetan, lantoki eta erakundeetan. Izugarria izan da ariketak sortu duen mugimendua.
- Herritar askok eta askok euren hizkuntza ohituren gainean hausnartu dute, *ahobizi* edo *belarriprest* izango diren erabakitzeko, esaterako. Eta noski, lehen euskaraz ez ziren elkarriketak euskaraz izan daitezen saiatu dira.
- Badakigu Euskaraldia eraginkorra dela, eta edizio honen ikerketak adieraziko digu zehatzago zein emaitza eman duen aurtengoak, horien berri aurrerago emango dizuegu.

- Orain aurrera begira jartzea dagokigu, eta ariketari buruzko balorazio sakonagoa egitea askotariko eragileekin: herri batzordeak, eragileak, entitateak... hurrengo Euskaraldia are hobea izan dadin.
- Balorazio hori egiteko garrantzitsua izango da parte hartu duten *belarriprest* eta *ahobizi* guztien bizipenak jasotzea, horretarako eskatu nahi diegu parte-hartzaile guztiei euskaraldia.eus/bizipenak/ gunean sartu eta ariketan bizitakoak parteka ditzaten.
- Hizkuntza-ohiturak ez dira gauetik goizera aldatzen; Euskaraldiak arnas luzeko ekimena izan behar du. Bizipenez bizipen, lehen hitza euskaraz egitea, edo elkarriketa elebidunak izatea guztiontzat ohikoa bihurtu arte jarraituko du Euskaraldiak bizirik".

Gora eta behera, Euskal Herrian

450 UDALERRI GORA

"Inoizko herri gehienek antolatu dute laugarren edizio honetako Euskaraldia. Benetan berri pozgarri da euskararen biziberritzean lanean dihardugun eragile eta norbanako guztientzat. Horrek esan nahi baitu, inoizko herri gehienetan piztu dela ariketaren beharra eta antolatzekeo ilusioa. 450 herri murgildu dira Euskaraldian".

7.500 ENTITATE GORA

"7.500 entitatek gorak berretsi du Euskaraldian parte hartu nahi duela, beren kideen artean Euskaraldia sustatuz, ikusgarri eginez eta euskara gehiago erabiltzeko pausoak emanez. Aurreko urteetako izen-emate kopurua gaitzitu du aurtengoak. Entitate askok adierazi dute parte hartzeak entitatean euskararen erabilera areagotzeko urratsak ematen laguntzen duela".

PARTAIDETZA, KALEAN BEHERA

"Nahi baino txapa gutxiago ikusi ditugu kalean, eta hori aztertu beharrekoa da. Zergatik pertsona batzuek txapa hartu bai baina gero janzten ez duen. Dena dela, uste dugu, orain arte iritsi ez garen herritar geruza batera ere iritsi dela Euskaraldia. Orain arte parte hartu ez duten askok hartu dutela parte ariketan, izan entitatearen bitartez ezagutu duelako edo batzordea iritsi delako eurenengan. Zabalitzeko beste pauso bat eman du, beraz, ariketak".

Gora eta behera, bi udalerrietan



XAXAFEST JAIA GORA

Andoaingo batzordeak hilaren 9an antolatu zuen lehen ekimenak ikusmina sortu zuen, udalerriaz harago. Haur eta gazteengan jarri zen arreta, eurak baitira euskaraz aritzeko xaxatzaile egokiak.



URNIETAKO EKITALDIAK GORA

Bi hitzordu nagusi antolatu ditu Urnietako Batzordeak: Hilaren 18an, San Juan plazan. Eta, hilaren 25ean, Xoxokan. Biak ala biak, oso ondo antolatutako ekitaldiak. Partaidetza handikoak izan ziren, gainera.



TXAPAREN ERABILERA BEHERA

Euskaraldian parte hartzeko txapa janztearen garrantzia azpimarratu zuten, baina eskaerak ez du behar besteko oihartzunik izan. Kalean, 11 egunez, agerikoa izan baita aurreko edizioetan baina txapa gutxiago ikusi dela gure udalerrietan.



Xoxokako eskola zaharraren kanpoaldean egin zuten erromeria. AIURRI

Amaiera bikaina Euskaraldiari

Xoxokako Auzo Batzordeak Euskaraldiari amaiera emateko ekitaldia antolatu zuen eta, eguraldia lagun hartuta, euskararen aldeko ariketa kolektiboari amaiera biribila eman ziotela esan daiteke



Lurdes Iriondo Udal Musika Eskolako ikasleek parte hartu zuten ospakizunean. AIURRI



Eguraldia lagun, ibilbide polita osatu zuten Euskaraldiarekin bat egin zuten hainbat lagunek. AIURRI



30 bat lagun bildu ziren AEK-k eta Euskaraldiak elkarlanean antolatutako Mintzodromoan, aurreko ostegunean, San Juan plazan. AEK

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Batzordeak Goiburu aldera eraman zuen Euskaraldiaren amaierako ospakizuna. Hango auzo elkarteak bideratuta, mendi-irteera eta erromeria egin zuten. Goizean, Besabitik

Adarramendira igo ziren. Eta, eguerdi aldera, hamaiketako eta erromeria egin zuten eskola zaharraren kanpoaldean. Lurdes Iriondo Udal Musika Eskolako ikasleak arduratu ziren hitzordua musikatzeaz.



Ongi Etorri Eskolara ekimenaren baruan, Familia lagunen azken bilkura egin zuten Andoaingo Errekaburu elkarteak. Bertan zirenek bat egin zuten Euskaraldiarekin, taldeko argazkian ikus daitekeenez. ONGI ETORRI ESKOLARA

Andoaingo azken hitzorduak

Aitzakia ederra eman du Euskaraldiak, udaberrian, herria hitzorduz betetzeko. Erronka erraldoiak iraun bitartean, askotariko ekimenak izan dira Andoaingen, guztiak, euskararen bueltan, hizkuntza-ohituretan eragiteko asmoz



Mintzodromoa egin zuten Andoaingen, aurreko ostiralean. AIURRI



Andoaingo Euskaraldiaren egitarauan kultur ekitaldiek tarte nabarmena izan dute. Kultura Sailarekin batera, "Arizona" antzezlan iragarri zuen Andoaingo Batzordeak. Bete egin zen Garmendia eta Plazaola ikusteko auditorioa. AIURRI



AEKk antolatu zuen Mintzodromoa, Plaza Morean. AIURRI

EUSKARALDIA '25



ATAL BEREZIA
WEBGUNEAN



Urrietako hainbat merkatalgune, Euskaldiarekin bat. URNIETAKO EUSKARALDIA



Plastigaur. ANDOAINGO EUSKARALDIA



IZT. ANDOAINGO EUSKARALDIA

Eragileen atxikimendua

Merkatalguneak, enpresak, askotariko elkarteak... Euskaldiarekiko atxikimendua adierazi duten erakundeak ez dira gutxi izan. Haietako batzuk, gainera, Euskaldiko *entitate* bilakatu dira eta lanketa bereziak egin dituzte beren erakundeetan



Andoaingo AEKko irakasle taldea. AIURRI



Gislan. ANDOAINGO EUSKARALDIA



Kotoi elkarte. ANDOAINGO EUSKARALDIA



Jaien hasieran eta amaieran, Urnietako Erraldoien eta Buruhandien konpartsak agerpena egingo du. AIURRI

Abiatzear dira Gazte Festak Urnietan

Lau eguneko egitaraua osatu dute herriko eragileek zein Urnietako Udalak. Goiz, arratsalde eta gau, ez da aspertzeko tarterik izango herrian, Gazte Festek iraun bitartean

Erredakzioa URNIETA

Ostegunetik igandera, zer gozatua izango da herrian, uda atarian ospatzen diren Gazte Festekin. Adin guztiei begirako egitaraua osatu dute Urnietako Udalak eta herriko eragileek elkarlanean: musika, gastronomia, dantza eta kaleko ikuskitzak izango dira aurten ere jaiaren ardatz nagusi.

Osteguna, festa-gosea dutenentzat

Gazte Festen hasierako suziria ostiral arratsaldean jaurtiko bada ere, ostegunean bertan hasiko da egitaraua, 19:00etan, Poxta Zahar elkarteak antolatutako pintxo-lehiaketarekin. Ez da taldeak hitzordua antolatzaren duten lehen urtea eta, orotara, aurten, lau tabernak har-

tuko dute parte: Iparralde, Kandel, Frontoi eta Kantoi. Joan den urtean, Kantoi tabernak irabazi zuen; aurtengo garailea zein den, berriz, ostegun iluntzean erabakiko dute festazaleek.

Ostirala, txupinazoa eta musika-doinuak

Asteburuari ekitearekin batera murgilduko da herria bete-betean

ospakizun-giroan. Arratsaldeko 16:30etik aurrera, 11 eta 16 urte bitartekoentzat zezen mekanikoa jarriko du Gaztelekuak, Plazido Muxika plazan. 18:00etan, berriz, toki beretik aterako dira buruhandiak eta erraldoiak, Bosko Anitz txarangarekin batera. Ordubete beranduago, ohiturak aginduta, kalera aterako da Kantazaun, kantukalejira egiteko asmoz. Iluntzeko 19:30ean izango da txupinazoa, udaletxeko balkoian, Gaztelekuko gazte eta hezitzaileen eskutik. Behin Egape Dantza Taldeak erakustaldia eginda, gaueko ekitaldien txanda iritsiko da. Etxeberri plazan esaterako, edari eta janari postua jarriko ditu auzo elkarteak, zezen mekanikoarekin batera. Era berean, afari tropikala izango dute gazteek, Poxta Zaharrek antolatuta, Jakutegi plazan.

Gaua luzatzeko prest daudenentzat, 23:00etatik aurrera, Zilibito Records, Kete, Mirail eta DJ-ak arituko dira oholza gainean, festa ordu txikietara arte luzatzeko asmoz. Oiatzuarrak izango dira lehenak oholtzara igotzen. Gainerako hirurak etxe-ko uza dira.

Larunbata, mahoiz jantzeko eguna

Txanbolin txistulari bandak esnatuko du herria, larunbat goizean, 09:30ean egingo duen dianarekin. Hori horrela, euskal dantzaz beteko dira, ondoren, Urnietako kaleak eta plazak, Egape Dantza Taldearen "Urnietako dantza" jaialdiarekin. Eguerdian, berriz, Matxotik abiatuko den triki-poteora gerturatzeko gonbita luzatu die herritarrei Poxta Zahar elkarteak, ondoren, guztiak elkarrekin, herri bazkarira joateko. Arratsaldeari begira bi hitzordu izango dira 18:00etan: batetik, familia-giroa izango da nagusi Plazido Muxika plazan taularatu den "Bonba bat naiz" kale antzerkian. Bestetik, dantzan ipiniko ditu urnietarrak Lau Katu txarangak. Iluntzeko 19:30etik aurrera, gauera bitartekoa izango den kontzertu-sartari emango zaio hasiera, San Juan plazan (Egape Ikastolako aterpean, eguraldi txarra eginez gero): erromeria Lisker taldearekin, Herenegun, DJ Gio... Askotariko musika-generoek hartuko dute, beraz, oholza larunbatean.

Igandea, haurrak protagonista

Igandean ere herritarren iratzargailu-lanak egingo ditu Txanbolinek, 10:00etan hasiko den dianarekin. 11:00etan, Egape Ikastolako patioan, zirku-tailerra izango da, haurrei zein familiei zuzenduta. Horrekin batera, Habitantes de Innsmouthen antzara joko erraldoia ere egongo da, ordu berean.

Eguerdian, kirolariek hartuko dute ospakizunaren lekukoa: pilota txapelketako finalak jokatuko dira kontzejupean, Urnietako Kirol Elkarteko (UKE) pilota sailaren eskutik. Horren segidan, 12:45ean, San Joan plazan, Txanbolin txistulari bandak musika- eta dantza-emanaldia egingo du, Egape Dantza Taldeko dantzarien saioarekin batera. Arratsaldeko 18:00etan, hitzordu bikoitza izango da herrian: dultzaineroekin batera hartuko dituzte kaleak berriro ere erraldoi eta buruhandiek eta, bestalde, "Erremontari, herriz herri" erremonte-jaialdia izango da frontoian. Horrela, DJ Kaktusek emango dio amaiera lau eguneko festa egitarauari, 19:30etik aurrera izango den disko-festarekin.

“Ilusio handia egiten die gazteei pregoia irakurtzeak”

LAIDA OFICIALDEGUI ETA OIHANA IGARRIZ GAZTELEKUKO HEZITZAILEAK

Gaztelekuaren eskutik iritsiko da festa Urnietara. Herriko nerabeek botako dute txupinazoa, ostiralean, 19:30ean, udaletxetik

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Herriko nerabeen topaleku da Gaztelekua: ikasturte osoan, 12 urtetik 17 urte bitarteko urnietarrak beren aisiaz gozatzera joaten dira bertara, astelehene-tik ostiralera. Bada, festetan protagonismo berezia izango dute aurten, beraiena baita jaien hasierako txupinazoa botatzeko ardura. Gaztelekuko hezitzaile dira Laida Oficialdegui eta Oihana Igarritz.

Zuen eskutik iritsiko da festa herriara, ostiral iluntzean botako baituzue txupinazoa. Erronka pozgarria, ezta?

Oihana Igarritz: Pozez hartu genuen gonbidapena. Gazteei izugarriko ilusioa egiten die pregoia irakurtzeak, gehienbat, txikienei. Askotan, herrietan, nerabeei ez zaie, benetan, lekuri eskaintzen eta garrantzitsua da beren presentzia azaleratzea.

Gazteekin elkarlanean idatzi al duzue pregoia?

O.I.: Beraiekin, elkarrekin, pregoia idazten ahalegindu gara; hori izan da gure helburua. Hortik hainbat ideia atera dira: herria festara animatzen dute, ondo pasatzera, elkarrekiko errespetua izateari garrantzia emanda. **Laida Oficialdegui:** Zaila izan da guztiekin elkartzea, ez direlako denak egun eta ordu berean etortzen Gaztelekura. Beraienak dira ideiak eta Oihana eta biok esaldi horiek guztiak lotzeaz arduratu gara.

Gazte Festen egitarauari dagokionez, zein da nerabeek gehien gogoko duten hitzordua?

O.I.: Helduenei musika-eskaintza da gehien gustatzen zaiena: taldeak, DJak... Gazteenei, berriz, buruhandiak eta erraldoiak, nagusiki.

L.O.: Festetan elkarrekin denbora partekatzea ere oso gustuko dute.

Gazteei bideratutako ekintzen artean, zezen mekanikoan ibiltzeko aukera emango duzue zuek festen lehen egunean.



Oficialdegui eta Igarritz, Gaztelekuan. AIURRI

O.I.: Gazte guztiei bideratutako ekintza da, 16:30etik 18:30era, Gazteleku alboko estalpean, Plazido Muxika plazan.

Orain gutxi lur hartu duzue biek ala biek Urnietako Gaztelekuan. Zer moduzkoa izan da hasiera?

L.O.: Apirilean, udaberriko ekintzeekin batera hasi nintzen, aurten. Printzipioz, Aste Santuan egon behar nintzen, soilik, irakaslea naizelako eta ordezkapenak egiten ibiltzen naizelako. Azkenean, luzatu egin zait eta hemen gelditu naiz. Oso ondo nago, nahiz eta hasieran pixka bat zaila egin, gazteekin harremana sortu arte. Baina Oihanaren laguntzarekin... Oso ondo! (Barreak).

O.I.: Martxoaren bukaeran sartu nintzen ni eta, egia esan, pixka bat udalekuen tankera hartu nion. Oso motibatuta sartu nintzen. Gainera, udaberriko ekintzak lagungarriak izan ziren gazteak ezagutzeko, talde txikiagoetan bilduta zeudelako.

Normalean, zertara gerturatu ohi dira nerabeak Gaztelekura?

L.O.: Txikienak gehienbat jolastera etorri ohi dira, billarrera edo futbolinera, adibidez.

O.I.: Nagusiagoek gurekin hitz egitea dute gustuko, beraien kontuez.

L.O.: Eroso sentitzen dira gurekin, beren gauzez hitz egiteko.

Mesedegarria al da Gaztelekua, askotariko adinetako gazteek aisialdi-espazioa parteka dezaten?

O.I.: Bai, nik uste dut baietz. Oso harreman ona dute Gaztelekura hurbiltzen diren adin ezberdinetako gazteek.

L.O.: Askotan nahasten dira beren artean eta polita da hori.

Uda-sasoari begira, ba al daukazue aparteko hitzordu berezirik buruan?

O.I.: Ekintzetako batzuk Urnietan bertan izango dira, bai Gaztelekuko barne espazioak zein kalea erabilita. Horrez gain, inguruko herrietara irteerak egitea ere pentsatu dugu. Askotariko ekintzak egingo dituzte.



AIURRI

Aurtengoa, afari tropikala

Askotariko gaiak landu ditu Poxta Zaharrek, urteotan, Gazte Festetako afarian. Iaz, esaterako, adineko itxura egiten zuten kuadrilla ugari aurkitu genituen. Aurtengoa, afari tropikala egokitu da. Gaiari lotuta, bistakoa da kolore bizirekin eta arropa arinarekin osatu daitekeela mozorroa. Prest daude, hortaz, urnietarrak, iluntzea epel bezain tropikal ospatzeko.

Merezitako omenaldia

Larunbatean, "Urnietan Dantzan" eguneko ekitaldi nagusiaren hasieran, Egape Dantza Taldeak omenaldi beroa eskainiko dio Maria Sandonis Lasherasi. Iaz, udan zendu zen elkarteko kidea. Egape Dantza Elkarteko lehendakaria izan zen, eta baita Urnietan Dantzan jaialdiaren sortzaile eta sustatzaileetako bat ere.



AIURRI



AIURRI

Kontsejupeko finalak

Igandean, eguerdiko 12:00tan hasita, Kontsejupeko pilota txapelketako finalak jokatu dira, Urnietan Kirol Elkartearen pilota sailak antolatuta. Maiatzean, hainbat egunez, partidak eta buruz burukoak jokatu ostean, iritsi da aurtengo saridunak erabakitze garaia. Pilotan jokatuz eta gozatuz, txapelketa bizia da udaletxeko arkupeetan jokatu ohi dena.

URNIETAKO GAZTE FESTEN EGITARAUA

MAIATZAK 29

OSTEGUNA

19:00 Pintxo-lehiaketa, Poxta Zaharrek antolatuta: Iparralde, Kandela, Frontoi eta Kantoi tabernetan.

MAIATZAK 30

OSTIRALA

16:30 11-16 urte bitartekoentzako zezen mekanikoa Plazido Muxika plazan, Gaztelekuarekin elkarlanean.

18:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira Plazido Muxika plazatik San Joan plazara, Bosko Anitz txarangak animatuta.

19:00 Kantazaun kantujira Etxeberri plazatik. Manttaiek antolatuta.

19:30 Jaiei hasiera emateko txupinazoa udaletxeko balkoitik, Gaztelekuko hezitzaile eta gaztetxoek eskutik.

Ondoren, Egape dantza taldeko dantzarien emanaldia.

20:00 San Joan plazatik hasita, Burrunba elektrotxaranga herrian zehar.

20:30 Zezen mekanikoa eta musika, Etxeberri Plazan, auzokideek antolatuta. Edari, musika eta janari postua egongo da. Euria bada, bertan behera geratuko da.

21:00 Afari tematikoa Jakutegin, Poxta Zaharrek antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Zilibito Records, Kete, Mirail, DJ-ak.

MAIATZAK 31

LARUNBATA

09:30 Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

10:30 XIX. Urnieta Dantzan jaialdia: Dantzari txikien emanaldia plazan.

11:00 Dantzarien topagunea Egape ikastolan.



Ostiral gauean, Urnietako Mirail taldea zuzenean ariko da. MIRAIL

11:30 Dantza saioak Idiazabal kalean.

12:30 Maria Sandonisi omenaldia eta Urnieta Dantzan ekimeneko saio nagusia Plazido Muxika plazan.

12:30 Idiazabal kaleko Matxo tabernatik abiatuta, triki poteoa herrian barrena.

14:00 Herri bazkaria San Joan plazan.

18:00 "Bonba bat naiz" kale antzerkia, Bea Larrañagaren eskutik Plazido

Muxika plazan. Euria bada, Saroben.

18:00-20:00 Lau Katu txaranga, Poxta Zaharrek antolatuta.

19:30-21:00 eta 23:00-01:00 Erromeria Lisker taldearekin, San Juan plazan. Euria bada, Egapen.

01:30 Herenegun taldea San Juan plazan.

03:30 DJak San Juan plazan, Poxta Zaharrek antolatuta. Euria bada, Egape ikastolako jolastoki estalian.

EKAINAK 1

IGANDEA

10:00 Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00 Zirku tailerra Egape Ikastolan. 2-5 urteko haurrek heldu baten laguntza beharko dute.

11:00 Antzara Joko Erraldoia Egape Ikastolan, Habitantes de Innsmouthe antolatuta.

12:00 Pilotako finalak kontzejupean.

12:45 Txanbolinek eskainitako emanaldia San Joan Plazan, Egapeko dantzarien saioarekin batera. Euria bada, Saroben.

18:00 Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira San Joan plazatik Plazido Muxika plazara, dultzaineroekin.

18:00 "Erremontari herriz herri" Erremonte jaialdia, frontoian.

19:00 DJ Kaktusekin Diskofesta plazan. Euria bada, Egape ikastolako jolastoki estalian.



XIX Urnieta dantzari

Maiatzak 31



10:30 DANTZARI TXIKIEN EMANALDIA

San Joan Plaza

11:00 DANTZARIEN TOPAGUNEA

Egape Ikastola

11:30 DANTZA SAIOAK

Idiazabal Kalea

12:30 EMANALDI NAGUSIA

Plazido Muxika Plaza (euria bada kiroldegian)



Gipuzkoako Itzulian gailendu dira

TXIRRINDULARITZA Urnieta, Ordizia eta Elgoibar udalerrietatik abiatu zen hiru eguneko itzulia eta, junior mailan, bikain aritu dira Andoaingo Txirrindulari Eskolakoak: Bi etapa, sailkapen orokorra, mendiko sailkapena eta tarteko helmugak irabazi dituzte

Erredakzioa ANDOAIN
Gipuzkoako Itzulia amaituta, zakua sariz beteta ekarri dute Andoainera. Txapela kentzeko modukoa da lortu dutena: junior mailan, sailkapen orokorrean, Irati Aranguren lehena izan zen, Intza del Teso 11. eta Izaro Etxarri 13. Bigarren etapa ere irabazi zuen mailot horiak, eta lehen etapan bigarren sailkatu zen. Erregularitasuna saritzen da itzulietan, beraz, Arangurenek ez du parekorik. Hori gutxi ez eta mendiko sailkapena ere Arangurenek irabazi zuen eta, tarteko helmugak Etxarrik. Taldekako sailkapenean bigarren postua lortu zuten.



Junior mailakoek erakustaldia eman dute Gipuzkoako Itzulian. ANDOAINGO

Erlojupekoa, Urnietan

Bigarren urtez jarraian, Urnietako kaleetatik abiatu zen Gipuzkoako Nesken Itzulia. Iaz bezala, erlojupekoa herrigunean egokitutako ibilbide itxian egin zuten. 1,8 kilometroko ibilbidean junior mailako lau txirrindulari nagusitu ziren, 23 urte azpikoen eta elite mailako denborak nabarmen hobetuz. ZU-K taldeko Maier Olanok eta Andoaingo Txirrindulari Eskolako Irati Arangurenek denbora ia-ia berdina egin zuten: 2:53:55 eta 2:53:60, hurrenez hurren. Bost milesima besterik ez! 1,87 segundura sailkatu zen Laida Herrero eta, atzetik, bi segundura Andoaingo Txirrindulari Eskolako Izaro Etxarri.

Ikusleen begietara ikuskizun ederra da txirrindulariak bertatik bertara ikustea. Emakumezkoak izateak garrantzi berezia du, eredu bilakatzen baitira gazteagoak diren kirolarien aurrean. Urnietan estatu osoko taldeak elkartu ziren.



Herrigunea erlojupeko ibilbidea osatzeko egokitu zuten. AIURRI



Azken bihurgune itxia, Kantoi parean, erlojupekoari amaiera emateko. AIURRI



Ezker-eskuin: Escudero, Legarreta eta Rajado. MIKEL ARBERAS

Eskualdeko kideak, urteko mendi-lasterketarik handiengan

MENDI-LASTERKETAK Lan txukuna eginda helmugaratu ziren eskualdeko korrikalariak Zegama-Aizkorri lasterketan

Erredakzioa ANDOAIN / URNIETA
Eguraldia lagun, zita berezia izan zuten iganden Aizkorriren magalean mendizaleek: Zegama-Aizkorri lasterketa ezagunaren 24. edizioa izan zen eta, urtero legez, etxeko zein nazioarteko ehunka korrikalarik hartu zuten parte, baita eskualdeko ere.

Lasterkari guztien artetik Sara Alonso euskalduna eta Elhousine Elazzaoui marokoarra nabarmendu arren, marka ederra

egin zuten Andoaingo zein Urnietako korrikalariak.

Denetan azkarrena Asier Rajado Barberena andoaindarra (04:29:50) izan zen, eta haren atzetik helmugaratu zen Oier Escudero herrikidea (04:50:17). Hori horrela, Mikel Legarreta Astiasaranek (05:25:32) ere ez zuen hutsik egin. Kirol-erronka erraldoiak duen parte-hartzaierik beterranoenatarikoa da urnietarra.



Urnietako "Aurrera Markelekin" bat egin zuen Hassan Ait Chaouek. AUERRERA MARKELEKIN

Bost final, asteburu bakarrean

ESKUBALOIA Kopako bost finaletan murgilduta daude Leizarango taldeak

Erredakzioa ANDOAIN

Denboraldia amaitzeko jardunaldi bakarra falta da eta Leizaran Eskubaloi Klubarentzat emozioz beterikoa izango da: bost final jokatuko dituzte!

Leizaran SenM-Donibane

Allurralde. Larunbata, 16:15.

Aloña Mendi-Leizaran KadM

Allurralde. Igandea, 11:30.

Boga Boga-Leizaran InfN

Karela, Orio. Igandea, 11:30.

Leizaran InfN-Urola

Karela, Orio. Igandea, 09:45.

Leizaran InfM-Pulpo

Errenteria. Igandea, 10:00.



Kadete mailako neskak, denboraldi honetako argazkian. UKE

Kopako finala jokatu dute, igande honetan, 12:00tan hasita

ESKUBALOIA Iñaki Mecanizados Urnietako kadeteak Kopako finalera sailkatu dira, Zumaiaiko Pulpo 32-35 irabazita

Erredakzioa URNIETA

Igande honetan, eguerdiko 12:00etan hasita, UKEko Iñaki Mecanizados kadeteek Neurri Elgoibar hartuko dute Gipuzkoako Kopako finalean. Klubak zaletuak hurbiltzeko dei egin die herrikideei. Denboraldiko azken partida da bi taldeentzat

eta parekatua izatea espero da, ia final guztietan gertatu ohi den bezala.

Urnietak Ñam Jatetxeak

Ez dute finala jokatu, 26-18 galdu baitzuten Pulporen aurka. Galdu arren, denboraldia bikain amaitu dute.

Dominak Udako Sarian

IGERIKETA Banakako probatan domina irabazi zuten Buruntzaldea IKT-ko neskek: Amañur Iparragirre, zilarra 200 librean eta urrea 200 lau estiloetan; Laida Guerrero, zilarra 100 bular proban; Nora Miguelez, brontzea 200 lau estiloetan eta; Ane Meyer, brontzea 200 librean eta urrea 100 librean. Erreleboetan eta taldekako sailkapenean domina gehiago lortu zituzten.



VILCHES



De Torres, txapeldun-ordearen garaikurrarekin. Alboetan, garaileak, txaloka. AIURRI

Kopako txapeldun-orde, bigarren urtez jarraian

FUTBOLA Ametsa zen irabaztea eta urnietarrek, beste behin ere, gertu izan zuten. Meritu handia du taldeak, bi urtez jarraian Kopako finalera sailkatzea lortu baitu. Baina finalak jokatu eta irabazi egin behar dira eta, oraingoan, linterak hobeto asmatu zuen atean

Erredakzioa URNIETA

Ilusioz gainezka zeuden Urnietak KE taldeko jokalariek, finala jokatzeko eta irabazteko aukera hutsa amets egiteko nahikoa arrazoi badelako. Astigarragan ihes egin zuten garaipenak, iaz, urteko sasoi honetara iritsita. Bigarren urtez jarraian finale-raino iritsi dira, baina, oraingoan ere txapeldun-orde dira. Lastima! Pena da, baina ez da ahaztu behar bidea ederra izan dela. Izan ere, denboraldi osoan igor-fasean sartzeko borrokan aritu eta gero, Kopa jokatzeko izan zen geratu zitzaizen aukera bakarra. Eta ondo baino hobeto baliatu zuten, nagusitasun handia erakutsiz. Ligaxka bukatzeko bi jardunaldiren faltan, ziu-rra zuten finala jokatzeko txartela. Baina ezinezkoa izan da kopa Urnietara ekartzea. Lehen gola sartu zuten urnietarrek eta minutuak aurrera joan ahala linterak markagailua irauli zuten. Iritsiko da uda amaiera, amets berriak loratzeko garaia.

Aurkia eta ifrentzua, lehen murgilduta dauden UKEko taldeetan

Infantilak

Ezin beti irabazi eta Euskadiko kopako lehen, lehen partidari, 1-0 galdu zuten Bizkaia-aren aurka. Egunotan inoiz baino gehiago balioan jarri behar da mutilon balentria, denboraldi osoan ez dute partida bakarra galdu. Euskadikoan izan da lehena. Larunbat honetan, Lakuan, arabarren aurka ariko dira eguerdiko 12:00tan hasita. Garaipen berria eskuratzeko aukera dute.

Jubenilak

Gorengo mailaz igotzeko kanporaketan murgilduta daude urnietarrak. Aurrean, orde, aurkari zaila dute: linterak. Joane-koan, Urnietan bertan, 1-6 galdu zuten gorritxoek. Asteburu honetan play-offaren itzulikoa jokatu dute Zestoan. Larunbat honetan izango da, arratsaldeko 17:00tan hasita.

Seniorrak

Gorengo mailan ariko dira 2024-2025. denboraldian, sailkapen nagusiko 6. postua ziurtatuta. Azken jardunaldiraino ez zuten ziurtatu seigarren postu hori, Antigua taldea gertu zutelako. Urnietak Elgoibarren 2-4 irabazi zuen eta Antiguak, bere aldetik 4-0 galdu zuen Mondragon Bren aurka. Urnietak Gorengo mailako taldea da, beraz.

Emoziorik ez da faltako Arraten

PALA Gipuzkoako Herriarteko bi txapelketetan murgilduta dabilta andoaindarrak, eta Donostiako pilotariekin espezialitate desberdinetan neurtuko dituzte indarrak, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan

Erredakzioa ANDOAIN
Arrate pilotalekuan, igandean goizeko 09:30ean hasiko dira partidak. Andoaingo pilotariak ederki eskertuko dituzte herriko pilotarien animoak.

Larruzko paleta eta pala motza
Batetik, Andoain-Donostia lehia izango da, larruzko paletan eta pala motzean. Finalerdiko itzulerako neurtuko izango da. Donostiatik andoaindarrak 9 tantorekin errenta dakarte. Donostian, Ibai Iradik eta Iñaki Lopez de Munainek tanto batengatik galdu zuten (35-34). Pala motzean, berriz, Ibon Altunak eta Konldo Poncek 40-30 irabazi zuten.

Pala goman
Andoaindarrak eta donostiarrak final laurdenetan ariko dira norgehiagoka, final erdientaroko



Andoainek Donostiaren kontra jokatuko du, palan, igandean. GAZTELEKU

txartela lortu nahian. Aurretik, txapelketa honetan, Andoainek Zumaia eta Oiartzun utziak ditu bidean. Horietan, Julen Loidi banaka frontoi osoan aritu da, Xabier Alkorta banaka 7 barruan, eta, Iosu Etxeberria-Oier Belauntzaran binaka.



Zestoa amaitu da Herriartekoa

ESKUPILOTA Andoainek ezin izan du aurrera egin Herriarteko esku pilota txapelketan, Zestoa jokatutako final zortzirenetako bigarren jardunaldian ere hirutik bi partida galdu baitzituzten. Emaitzak: Kadeteak, Zestoa 22-0 Andoain; jubenilak, Zestoa 9-22 Andoain;

seniorrak, Zestoa 22-16 Andoain. Aurrekoan Andoainek jokatutako lehen jardunaldian ere bi partida galdu zituzten herriko pilotariak. Ondorioz, Herriartekotik kanpo geratu dira andoaindarrak. Ibilbide laburrekoa izan da aurtengoa.



Play-offeko itzulikoa denboraldiko azkena izango da Ubitarten. AIURRI

Play-offeko itzulera Ubitarten, jokoan deus ez izan arrear

FUTBOLA Gorengo mailako 2. sailkatuen arteko itzuliko partida larunbatean jokatuko da Ubitarten, 17:00etan

Erredakzioa ANDOAIN
Aste bi atzera, Euskaldunako lehen taldeak amestutako igotza lortu zuen ligako bigarren postua ziurtatzearekin batera. Gauzak horrela, Gorengo bi multzoko bigarren sailkatuen arteko play-offean ez dago ezer jokoan. Joanekoan, Amaikak

Bat taldearen zelaian, 3-1 galdu zuten. Itzulikoa Ubitarten da.

Infantil F8ko taldea, finalera
Kopako ligaxkan bost partida jarraian irabazi ostean, larunbat arratsaldean hiruko finala jokatuko dute Oñatin Tolosa B eta Urkiren aurka.



Infantil mailako F8 taldeko jokalariek. EUSKALDUNA

ERREMONTEA Finalisten zain dira Urriza eta Larrañaga

Urriza-Larrañaga (Petrítegi) Sagardearen Txapelketako finalera pasa dira eta datorren jardunaldian bigarren finalaurrekoa erabakiko da. Finalaren atariko jokatze sailek daude Al-dabe-Barrenetxea IV (Oialume Zar). Noren aurka? Ezkurra II-Juanenea (Bereziartua) eta Ansa II-Zubiriren (Aburua) arteko partidaren erabakiko da.

KIROLA Kiroldegiko sarbidea, eskuko telefonoaren bitartez

Andoaingo Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzak garatutako Nik patrika digitala izeneko aplikazio mugikorrarekin. Horri esker, udal kirol instalazioetako erabiltzaileak txartel fisikoa erabili gabe sartu ahal izango dira. BAKQ identifikazioa edo legez onartutako edozein (Izenpe, NAN elektronikoa...) behar da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

GAZTE FESTAK

URNIETA Poxta Zahar
Gazte kuadrillen eskutik, pintxo lehiaketa: Iparralde, Kandela, Frontoia eta Kantoi tabernetan.
Maiatzak 29, ostirala; 19:00tan hasita.

URNIETA Txupinazoa
Gaztelekuko hezitzaile eta gaztetxoek eskutik.
Maiatzak 30, ostirala 19:30, San Juan plaza.

BAKARRIZKETA

ANDOAIN Antton Telleria
"Ninini" bakarrizketa saioa, ETBko aurkezle ezagunaren eskutik.
Maiatzak 30, ostirala 19:30, Bastero Kulturgunea.

MATRIKULAZIOA

URNIETA Musika eskola
Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2025-2026 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea zabalik da. Informazioa: Lekaio (943 00 80 33).
Azken eguna: Maiatzak 30.

DANTZA

URNIETA "Urnieta Dantzan"
XIX. edizioa bertan da, Egape Dantza Taldearen eskutik.
10:30 Dantzari txikien emanaldia San Juan plazan.
11:00 Dantzarien topagunea Egape ikastolan.
11:30 Dantza-saioak Idiazabal kalean.
12:30 Emanaldi nagusia Plazido Muxika plazan.
Maiatzak 31, larunbata.

ANDOAIN Amama
Amama batek ipuinak kontatzen dizkio bilobari. Euskal dantzetan oinarritutako koreografiaren bidez, zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin.
Ekainak 8, igandea. 12:00. Bastero Kulturgunea.




Kaliforniako Dummy musika taldea. DUMMY

ANDOAIN Rock Jaialdia

Eguerdian hasita, hainbat tokitan, Rukula, Gori Gori eta Marte Lasarte. Arratsaldean, Nafarroa plazan, jaialdi nagusia: Ezezez, Nafarroatik; Dummy, Kaliforniatik; Holiday Ghosts, Londonetik; The Black Wizards, Portugal aldetik; Amor Liquido, Madriletik; eta, A place to bury Strangers, New Yorketik.
Ekainak 7, larunbata.



ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Mision imposible
Maiatzak 31, larunbata. 19:30.
Ekainak 1, igandea. 19:30.
Ekainak 2, asti. 17:00, 19:30.

Una noche en Zoopolis
Maiatzak 31, larunbata. 17:00.
Ekainak 1, igandea. 17:00.



SINOPSISIA

Mission: Impossible - The Final Reckoning
Zuzendaria: Christopher McQuarrie. **Aktoreak:** Tom Cruise, Hayley Atwell, Ving Rhames, Simon Pegg, Esai Morales, Pom Klementieff, Henry Czerny, Mariela Garriga, Holt McCallany, Janet McTeer, Nick Offerman, Hannah Waddingham, Tramell Tillman... **Herrialdea:** AEB. **Urtea:** 2025. **Hizkuntza:** Gaztelaniaz **Generoa:** Akzioa. **Iraupena:** 169 m.



Hunt agente ahalguztidunaren azkena

Ethan Hunt agenteak jarraitzen du Gabrielelek "Erakundea" izenez ezagutzen den IArein programa teknologikoki ahalguztiduna kontrola ez dezan. Film ikusgarria eta sagaren azkena dirudiena, ziurrenik, urteko film ikusiena izango da.





AIURRI

Elikagai bankua

Aurreko asteburuan, Andoaingo hainbat dendatan, elikagaiak emateko aukera izan zen. "Udaberriko ekimena", hala izendatu zuen ekimena Gipuzkoako Elikagaian Bankuak. Bilketarako ezinbestekoak izan ziren boluntarioak. Argazkian, Shirley Barrera eta Eneko Baltanas Andoaingo laguntzaileak Nafarroa plazako supermerkatuan.



LSB

EuskoSkills txapelketan, onena

La Salle Berrozpeko lanbide-heziketako ikasle Ivan Ortega Villasek urrezko domina irabazi du Euskadiko EuskoSkills lehiaketan, Diseinu Mekanikoa – CAD modalitatean, irakasle Amaia Zapiraineekin batera. Horrenbestez, zuzenean igaroko da Estatuko SpainSkills lehiaketako finalera. Datorren urteko otsailean izango da. Euskadiko txapelketa FICOBAn jokatu zen.

HERIOTZ-OHARRA

Joseba Garmendia Mugika
'Moli'

2025eko maiatzaren 24an hil zen, 53 urte zituela



LEITZ KIROL KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE SORTZAILEA

*Ez ditugu inoiz ahaztuko, lagun artean eta bizikleta gainean pasatako momentuak.
Agur bero bat adiskide!*



Andoainen, 2025eko maiatzaren 24an

Pintxo onena dastatzeko aukera

Santa Krutz jaietako pintxo lehiaketan Zumea kaleko Gaztelutxo tabernakoa izan zen onena. Poz handia hartu zuten tabernako kideek eta sariak oihartzun handia izan zuen. Gauzak horrela, igande honetan, pintxo dastatzeko aukera izango da 12:30ak eta 14:30ak artean.



AIURRI



lazio Kultur Asteko argazkia. AIURRI

Jarduera ugari Andoaingo Hogar Extremeño elkarteak

"El Miajon de los Castuos" Hogar Extremeño elkarteak XLVI. Kultur Astean murgilduko da, asteburu honetan

Erredakzioa ANDOAIN

Gonbita luzatu die elkarteak andoaindarrei: "Gonbidatu eta animatu nahi ditugu herritar guztiak proposatzen diren ekitaldi eta jardueretan parte hartzea". Egitaraua:

Maiatzak 31, larunbata

12:00 Hasierako ekitaldia: Agintariei harrera, minutuko isilunea hildako kideak gogoan hartuta, Extremadurako ereserkia, eta ha-maiketakoa.

16:30 Mahai jokoen finalak.

Ekainak 1, igandea

14:30 Bazkaria. Ondoren, bingoa.

Ekainak 2, astelehena

18:00 Patata-tortilla lehiaketa. Osagaiak Hogar Extremeño elkartearen eskutik.

Ekainak 3, asteartea

17:30 Marrazki-lehiaketa.

18:15 Haur jolasak, marrazki lehiaketako sari-banaketa ekitaldia eta txokolatea.

Ekainak 4, asteazkena

18:00 Haragia mozteko eta barbakoa prestatzeko ikastaroa Mikel Rodriguez su-kaldariaren eskutik.

Ekainak 5, osteguna

19:00 Artisanu garagardo eta gazta dastaketa.

Ekainak 6, ostirala

19:00 Extremadurako, Euskal Herriko eta Andaluziako dantzak eta abesbatza. Parte-hartzaileak: Intxaurrondoko Centro Extremeño, Lasarte-Oriako Semblante Andaluz, Urnietako Egape DT eta Mai-zorri Txalaparta taldea.

Ekainak 7, larunbata

10:00 Miga-lehiaketa. Osagaiak elkartearen eskutik.

11:00 Toka-lehiaketa.

12:00 Sari-banaketa ekitaldia.

Aste osoan, Zuenako kideen erakusketa ikusgai.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Joxe Mari Ollakarizketa
Ekainaren 2an, Joxe Mari urteak beteko ditu. Zorionak eta ondo ospatu, besarkada handi bat eta muxuak ebekoen partetik. Aupa zu!!!



ANDOAIN
Nora Mendizabal Ezeiza
Ekainaren 8an Norak 22 urte beteko ditu. Ondo-ondo ospatu eta muxu pilo bat amona Mirenen partetik.

KOMUNITATEA

ONDARRETA HERRI ESKOLA ANDOAIN

Ikasturte amaierako festa

Datorren larunbatean, maiatzak 31, Ondarreta Herri Eskolak berriro ere ikasturte amaierako festa ospatuko du.

Aurtengoan, goizean bertsolariak ariko dira eta ziklo desberdinetako ikasleen abesti eta dantza emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. Gainera, pintxo, tortila eta postre dastaketa ospatuko da, tailer ezberdinak eskainiko dira eta Leizarango ikasleek bigarren eskuko azoka antolatuko dute.

Egurdian berriz, guraso, ikasle eta irakasleen bazkaria izango da patioan eta arratsaldean festak jarraituko du, besteak beste, puzgarriak izango dira.



Egun osoko jaialdia izango da igandekoa. AIURRI

Andoaingo Euskal Jaialdia, igandean

Euskal Herriko herri askotako dantzariak, txistulariak, akordeolariak, txalapartariak, gaitariak, bertsolariak eta trikitilariak bilduko ditu ospakizunaren 35. edizioak, igande honetan, Urki Dantza Taldeak antolatuta

Xabier Lasa ANDOAIN

Hain zuzen, 15 urte bitarteko neska-mutiko gonbidatu ugari egingo dute beren emankizuna Andoaingo kaleetan, goizean zein arratsaldean: Azkain, Oiarzun eta Otxandioko dantza taldeak; Hernaniko txalapartariak; Lizarra eta Debako gaiteroak; Gasteizko txistulari eta akordeoilariak, eta Azkaingo bertsolariak. Horiekin bat egingo dute Andoaingo hainbat kultur talde eta kultur gileek: hala nola, Andoaingo Olagain Udal Txistulari Elkarteak, Ane Urbizu zuzendari duten Udal Musika Eskolako akordeoilariak eta, jakina, Urkiko Dantzariak.

Goikoplazan, bilkura, goizetik

Goikoplazan lehenbiziko hitzordua jarrita, goizetik ekingo diote ospakizunari. 10:30ean, txalapartaren hotsen eta aurkezlearen agurraren ostean, desfile-ibilbidea hasiko da. Plaza Morean, Juanita Alkainen, Espigoian, Zumean eta beste

hainbat plaza eta kaleetan emanaldiak eskainiko dituzte taldeek.

Hamaiketakoarekin gozatzeko aukera ere edukiko dute parte-hartzaileek, eta horretarako lanean ariko dira Ontza, Belkoain Berri, Irunberri, Peña Santa Krutz eta Kotoi elkarteetako kideak. 13:10ean berriro bilduko dira Goikoplazan. eta elkarrekin emanaldia egingo dute. Saio hori amaiturik, Urki taldeko familiak kanpotik heldutako zenbait neska-mutil beren etxetara bazkaltzera gonbidatuko dituzte. Beste zenbaitzuk Aita Larramendi Ikastolako eta La Salle Berrozpeko jangeletan edota Andoaindarra elkartean egokituko dituzte. 16:30etik aurrera, Goiko Plazan euskal festa giroari jarraipena emango diote, erromeria-dantzaldiarekin, Jeiki Hadi taldearekin.

Jaialdiaren etorrera iragaritzeko eta girotzeko, Naroa Asensio Urki Dantza taldeko dantzariak sortu duen kartel-iragarlea udaletxeko balkoian egongo da

zintzilik, maiatzaren 28tik igandera bitarte.

Euskal Folklorearen festa handia

Egun osoko jaialdiaren helburuak zeintzuk diren azaldu ditu Urki Dantza Taldeak. “Hamabost urte bitarteko neska-mutilengan euskal Folklorearen festa-giroari eutsi nahi zaio, eta horretarako, ezin egokiagoa izan daiteke folklore horren eguneroko biziberritzaile diren hainbat eragile (dantzariak, txistulariak, txalapartariak, akordeoilariak, gaiteroak, bertsolariak, trikitilariak, kantariak...) batu daitezten, eta herriko plazak eta kaleak hartu ditzaten”. Euskal Herriko euskal kultur gile gazteak herri-ara gonbidatuta, “elkarren arteko harremanak sendotzea ere nahi da jaialdiarekin”.

Aldi berean, gizartearen eta herritarren (familiak, ikastetxeak, elkarteak...) inplikazioa bultzatu nahi da, festaren parte izan daitezen”.



Aurtengo San Juan jailetako protagonista izango dira axeriak. AIURRI

Axeri-Dantzaz gain, bazkari irekia

50-25. urteurreneko ospakizun handiaren antolaketa jarraitzen du Axeri Dantzaren aldeko talde eragileak, eta Axeri Dantzaren entsegu sorta ez ezik, ekainaren 24ko bazkari herrikoia antolaketa darabil eskuartean, azken asteetan.

Axerien bazkaria, San Juan egunean

San Juan egunean, Axeri Dantza plazara eramateaz gain, bazkari herrikoa antolatu dute. Izan ere, axeriek, axeri zaleekin eta herritarrekin partekatu nahi dute dantza osteko bazkaria aurtan, eta horretarako, ekainaren 2tik aurrera txartelak salgai jarriko dituzte. Bazkaria La Salle ikastetxeko jolastoki estalian izango da, 14:30etik aurrera. Bi menu edukiko ditu bazkariak. Helduentzat: entsalada mistoa; baserriko oilaskoa parrilan; txerri saiheskiak parrilan; Eceizako pasteltxoak; ogia, kafea eta edariak (sagardoa txotxetik, ardoa eta ura). Haurren menuaren osagarriak, berriz, hauek: iberikoak; urdaiazpiko kroketak; baserriko oilaskoa parrilan patatekin; izozkia; ogia eta edariak (ura eta freskagarriak). Bi prezio jarri dizkiote menuari: helduek 21 euro eta haurrek 13 euro.

Urteurren bikoitza, herritarrekin ospatzeko gogoz

San Juan egunean, urtero, herriko elkarteren batean egin izan dute bazkaria, Goikoplazako saioa ukatu eta gero. Elkarte horietako bazkideek boluntario gisa prestatu izan dituzte bazkariak, halakoetan.

Urte berezia da aurtengoa, ordea, eta 50-25 urteurren bikoitza (Axeri Dantza berreskuratu zenekoa eta mistoa bilakatu zenekoa) axeri zaleekin eta herritarrekin ospatzeko gogoia agertu dute Axeri Dantza Elkarteak kide eragileek.

Nahiz eta Axeri Dantza dantzariak plazaratu, eta eurek izan protagonista nagusiak ekitaldi horretan, argi daukate Adunako eta Andoaingo herriena eta herritarrena dela kultur ondare kuttun hori, eta polita izan daitekeela elkarrekin ospatzea bazkari baten inguruan.

Horrexegatik zabaldu dute gonbidapena, “makina bat axeri zale eta euskal kultur zale ikusle gisa biltzen da Goikoplazan San Juan egunean, 12:00etan; gainera, horietako asko gustura asko batzen dira dantzaren azken zatiko Soka Dantzara. Bada, aurtengoan jarraipena eman nahi genioke Axeri Dantzaren inguruko festari, bazkaritan. Beraz, herritar orori luzatzen diegu gonbidapena, gurekin partekatu dezaten jai-eguna”.

Bestalde, axeri dantzari izateko gogoz dabilen herritarri aurtengo entsegu egunak gogorarazi dizkie: ekainaren 2, 4, 10, 12, 16 eta 18an, 19:00etan hasita.